

## KOSTU EGITURA

- Kostu garrantzitsuenak

Gure proiektua aurrera ateratzeko ditugun kostu finkoak hurrengoak dira: aplikazioen sorrerarako ordaindu behar duguna, hau da, behar ditugun baimenen kostuak eta aplikazioa sortuko duen pertsonaren soldata.

Kostu finkoen barruan, kostu desberdinak bereizi ditzakegu: zuzenak eta zeharkakoak. Iragarkien karguak zeharkako kostuak dira, iragarkiak egiterakoan, ordenagailu bakarrarekin nahikoa izango litzateke 500€ inguruko bat erosiko genuke. Beste aldetik, aplikazioaren baimenak eta aplikazioaren sorrerarako ordaindu behar ditugun kostuak, zuzenak dira. Aplikazioa sortzeko pertsonala kontratatzeke hainbat aukera ditugu; lehenengoa, pertsona bakarra kontratatzea izango litzateke eta beraren soldata gutxi-gora behera 30€/h ingurukoa izango litzateke. Baina enpresa bat kontratatzen badugu, prezioa gora joango litzateke 120€/h ordaindu beharko genieke. Azkenean, informatiko bat kontratatzea erabaki dugu eta 1.500€ -ko soldata izango du, legeen arloan espezializatua den gure beste langileak ere soldata hori izango du. Bi langileak kontuan hartuta 3.000€ ordaindu behar dizkiegu hilero. Guztizko kostu 3000€ izango lirateke hilero soldatak kontuan hartuta eta ordenagailuaren 500€-ko kostu finkoa.

